



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko martxoaren 9an

22 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

- Nafarroako Gobernuak Canal 4 Navarra, S.L. telebistan programa didaktikoak finantzatzeko egin dituen gastuen eraginkortasunari eta efizientziari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).
- Tuterako Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (12. or.).

G Saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Gobernuak Canal 4 Navarra, S.L. telebistan programa didaktikoak finantzatzeko egin dituen gastuen eraginkortasunari eta efizientziari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abenduaren 11n eginiko bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Gobernuak Canal 4 Navarra, S.L. telebistan programa didaktikoak finantzatzeko egin dituen gastuen eraginkortasunari eta efizientziari buruz Kontuen Ganbarak egindako fiskalizazio txostena, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2000ko abenduaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrús

Nafarroako Gobernuak Canal 4 Navarra, S.L. telebistan programa didaktikoak finantzatzeko egin dituen gastuen eraginkortasunari eta efizientziari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Nafarroako Gobernuak Canal 4-n dituen gastuen deskripzio orokorra (3. or.).
- III. Helburua, norainokoa eta mugak (4. or.).
- IV. Ondorioak (5. or.).

ERANSKINAK

1. Nafarroako Aurrekontu Orokorren bilakaera 1997.etik 1999.ra, Parlamentuaren eskaeraren xede diren aurrekontuko lerroetan, "publizitate eta propaganda gastuak" kontzeptuan (8. or.).
2. Zirkularra igorri zaien entitateen zerrenda (9. or.).
3. Canal 4-n emandako programetatik aztertu diren zerrenda (9. or.).

Nafarroako Gobernuaren Osasun kontseilariak aurkeztutako alegazioak (10. or.).

Nafarroako Gobernuak Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak aurkeztutako alegazioak (11. or.).

I. SARRERA

2000ko maiatzaren 15ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrek, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak eskatuta, Kontuen Ganbarari fiskalizazio txosten bat prestatzea eskatzeko erabakia hartu zuen, "Canal 4 Navarra, S.L.n programa didaktikoak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak egindako gastuen efizientzia eta eraginkortasuna" gaitzat harturik.

Zehazki, eskaerak adierazten zuen "Nafarroako 1998ko Aurrekontu Orokorretan, UPNk Alderdi Sozialistaren sostenguarekin onartutako haietan, Nafarroako Gobernuak osatzen duten departamentu guztietan kontusailak sortu zirela Canal 4-ri eskatu beharreko telebista-saio didaktikoak finantzatzeko. Departamentu bakoitzeko zenbatekoa 15 milioikoa izan zen.

Zenbait departamentuk, hala nola, Industriak, Osasunak eta Gizarte Ongizateak kontusail horiek Canal 4-ren telebista ekoizpena ordaintzeko erabili zituzten. Gero, Gobernuak aginduta, kontusail horiek erabiltzeari utzi zioten, agindu berria jaso arte, Sustapen Ministerioak Canal 4-k Nafarroa osorako egiten zuen emisioa bertan behera uzteko erabakia hartu zuen garai beretsuan.

Eskaera betetzeko eta Nafarroako Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Legearekin bat, 2000. urterako Jarraitutako Programa sartu da Parlamentuak eskatu duen fiskalizazio txosten hori.

II. NAFARROAKO GOBERNUAK CANAL 4 TV-N EGINDAKO GASTUEN DESKRIPZIO OROKORRA.

Parlamentuko eskaera ikusirik, ganbara hau saiatu zen zehazten egiaz egindako gastuaren izaera eta zenbatekoa, bai eta kontabilitateko erregistroa, ez baitzegoen berariaz adierazirik, banaka-banaka, aurrekontuen lerroetan ez eta eskaeran berean ere.

Ikerketa honetatik ondorio hauek atera genituen:

1. 1998ko aurrekontuetan eta, zehazki, aurrekontuko "Publizitate eta propaganda (2262) gastuak" kontzeptuan, hasierako kredituek 1997an baino 232 milioi gehiago egiten zuten. 1999an, ordea, 104 milioi gutxiago egin zuten (Ikus 1. eranskina).

Aldaketa hauek departamentu guztietan ageri dira.

2. Aurrekontuko kontzeptua zehaztu ondoren, haren lerro desberdinak aztertu ziren eta 1997ko

aurrekontuarekiko aurrekontua prestatzean 15 milioi pezeta inguruko igoera izan zutenak zein ziren zehaztu zen, zenbateko hori baita Parlamentuko Taldearen iritziz Departamentu bakoitzari atxiki zitzaiona saio horiek finantzatzeko.

Oro har, lerro bana agertzen da departamentuetan igoera horrekin –Canal 4ren aipamena egiten duen izen berezirik gabe–. 1999ko aurrekontuan, lerro horien kreditua nabarmen jeitsi zen (ikus 1. eranskina).

1998an izan zuen batez besteko betetzea aztertuz gero, ikus dezakegu ehuneko 65ekoa baizik ez dela izan, zenbateko txiki samarra gastu arrunten kasuan.

3. Bestalde, Nafarroako Gobernuaren kontabilitate sistemaren bidez Gobernuak 1997tik 1999ra bitarte Canal 4-ri egindako ordainketa zuzenen berri izan genuen.

Ordainketa horien baturak 15,8 milioi pezeta egiten du; hona hemen, ekitaldiz ekitaldi eta izae-raren arabera:

Zuzeneko ordainketen zerrenda (1997-1999)

Izaera	1997	1998	1999	Total
Euskararen sustapena	2.000.000	1.400.000	684.980	4.084.980
Osasuna sustatzeo saioak	-	-	10.115.200	10.115.200
Turismoko saioak	-	348.000	499.960	847.960
Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren saioa	-	-	150.000	150.000
Fidantzen itzulketa	-	600.000	-	600.000
Guztira	2.000.000	2.348.000	11.450.140	15.798.140

Hori aztertuta, honakoa azpimarratzen dugu:

- Euskara sustatzeko ordainketa dirulaguntzei dagokie eta aurrekontuko 4. kapituluan daude erregistraturik.

- 1998. urtean ordainketa bakarra izan zela ikusi dugu, saio baterako, zehazki "Nafarroa joatea itzultzea da" izeneko turismoko publierreportajea, –1998ko Fitur turismoko azokaren laburpena–, 348.000 pezetakoa, 15 milioiko igoerak dituzten lerroei egotzia.

- Era berean, 1998an, Herrilan Departamentuak 600.000 pezetako ordainketa egin zuela ikusi da, bi fidantzaren itzulketarena.

- 1999an ordainketa hauek nabarmentzen dira:

a) osasun sustatzeko 16 saio, Osasun Departamentuak kontratatutakoak 10, 1 milioiko pezetako zenbatekoarekin.

b) Aipatu Fitur turismoko azokaren laburpen-saioa, Industri, merkataritza eta Turismo Departamentuak ordaindua, 0,5 milioikoa.

c) "Gazteak eta Donejakue Urtea" gaiaren inguruko publierreportajea, Kirol eta Gazteriaren Institutuak ordaindua, 0,15 milioikoa.

4. Nafarroako Gobernura igorritako zirkularren erantzunak jaso ondoren, aurreko gastuez gain honakoak ere atzeman ziren, enpresa bitartekarien bidez eginda telebista saioetan:

• Nekazaritza Departamentuaren enkargua, Nasersa enpresa publikoari egina 1998an, jatorri deitura duten Nafarroako produktuak sustatzeko kanpaina baterako. Kanpaina hori Canal 4-n egin zen, 5 milioiko zenbatekoarekin, jatorri deiturak sustatzeko lau saiotan eta aipatu telebistaren zenbait saioen babesean gauzatuta.

• Lehendakaritza Departamentuak, Tecna S.L. de Publicidad y Comunicación enpresaren bitartez –Nafarroako Gobernuaren publizitatearen kudeaketaren adjudikazioa duen enpresa–, zenbateko hauek ordaindu zituen:

Izaera	1997	1998	1999	Guztira
112 telefono zenbakia ezagutaraztea	549.840	202.536	251.143	1.003.519
Basoko suteen aurkako kanpaina	-	438.828	631.287	1.070.115
Guztira	549.840	641.364	882.430	2.073.634

5. Canal 4 enpresak ez dio erantzunik eman egin genuen informazio eskaerari.

Beraz, aurreko gastu eta ordainketa horietatik 3. eranskinean zehaztutakoak "saio didaktikoak" izeneko multzoan sar litezkeela uste dugu. Zehazki, 1998ko ekitaldirako –urte hori baita Parlamentuaren eskaeraren xede–, garrantzi ekonomikoa departamentuz departamentu honako hau da:

Saio didaktikoetarako ordainketak - 1998

Departamentua	1998
Turismoa	348.000
Nekazaritza	5.000.000
Guztira	5.348.000

Fiskalizatu beharreko ekitaldiari dagokionez, Parlamentuaren eskaeraren jomuga 1998ko ekitaldia bazen ere, gure iritziz komeni da hurrengo ekitaldira ere zabaltzea azterketa, saio gehienak 1999ko lehendabiziko seihilekoan programatu zirelako.

Azkenik, saioak kontratatzeke bi espediente aurkitu ditugu, tramitatzen hasi ondoren geldiariak. Hauexek, zehazki:

a) Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuak Nafarroako eskaintza turistikoa nafarren artean sustatzeko 10 saio kontratatzea aurreikusituen, Canal 4-n emateko asmoarekin. Saio horiek, 30 minutukoak, 5 milioiko kostua zuten, 1999ko aurrekontuari egotzi beharrekoak.

b) Osasun Departamentua, Canal 4-n osasuna sustatzeko 24 saio ematea, 45 minutukoak eta 15 milioiko kostuarekin –5 milioi 1999ko aurrekontuan, 10 milioi 2000koan.

III. XEDEA, IRISPENA ETA MUGAK.

III.1. XEDEA

Parlamentuaren eskaera betetzeko eta Nafarroako Kontuen Ganbara arauzten duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, 2000ko Jarduketa Programan sartu da "Canal 4 Navarra, S.L.n programa didaktikoak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak egindako gastuen efizientzia eta eraginkortasuna" gaiaren fiskalizazioa.

Lan honen jomuga nagusia 1998ko ekitaldia da, baina 1999ko aurrekontuari egotzitako gastuak ere, lehendabiziko seihilekoan emandako saioetatik heldu direnak aztertzen dira.

Beraz, lan honen xedeak hauexek dira:

1. xedea. Saio didaktikoen gastuak aurrekontu eta kontabilitatearen arloko printzipio arau-emalerei, aplikatzekoak direnei jarraikiz betetzen direla egiaztatzea, finantzako arrazoizkotasunaren inguruko iritzia agertu ahal izateko.

2. xedea. Azterketaren xede den jarduerari aplikatzekoa zaion legezketasun printzipioa betetzen dela egiaztatzea.

3. xedea. Kontratutako saioetan lortutako efizientzia eta eraginkortasun mailari buruzko azterlan operatiboa egitea.

III.2. NORAINOKOA

Aurreko helburuak kontuan harturik, lanaren arretagaia saio didaktikoak finantzatzeari atxikitako gastuaren izaera eta justifikazioa aztertzea izan da, komenigarritzat hartu diren alderdiak, prozedurakoak, kontabilitatekoak zein barne kontrolekoak, ikertu eta ebaluatu, bai eta betetzean lortutako eraginkortasun eta efikazia maila zehazten ahaleginduz.

Metodologia gisa Ganbera honek erabiltzen ohi dituen prozedurak aplikatu dira; alegia, Auditoretzako Gidetan bildutakoak eta Espainiako Estatu-tuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta -arauei jarraituz garatuak.

Horrez gain, eta 1998an kontzeptu horretan egiazki egindako gastuak behar bezala identifikatzeko, eta horien hedadura eta eraginaren berri izateko, Nafarroako Gobernuaren departamentu eta erakunde autonomoei eta halaber, Canal 4 Navarra, S.L. enpresari zirkularrak igorri zaizkie, honako honi buruzko informazioa eskatzeko:

- a) Enkargatutako edo egindako saioen zerrenda.
- b) Saio bakoitzaren kostua edo fakturatutako zenbatekoa.
- c) Saioek izan duten eraginaren gaineko azterlanak.

Zirkularra igorri zaien entitateen zerrenda txosten honen 2. eranskinean ageri da.

Kontraturiko saioen hedapena jakiteko komunikabideen audientziari buruzko 1998ko eta 1999ko azterlana eskuratu genuen Lehendakari-tzako Departamentuaren Komunikazio Zerbitzuan.

III.3. MUGAK

Gure lanak muga hauek izan ditu:

- Tebistako saio batek "didaktikoa" izateko zein ezaugarri tekniko izan behar dituen zehazturik ez egotea.
- Izaera horretako gastu guztiak identifikatu diren zalantzan gelditzea.
- Gastu horiek tebistako saioetan betetzean lortu den eraginkortasun eta efizientzia maila lortzeko zailtasunak, batetik, ez jakiteagatik noiz eman ziren saio horiek eta haien bitartez lortu nahi zenaren helburu zehatzik eta neurtzeko modukorik ez izateagatik eta, bestetik, saioek audientzian izandako eraginaren neurketa errealik edo jarraipenik ez egoteagatik. Bestalde, departamentu batek ere ez du gai honen inguruko azterlan edo txostenik aurkeztu.
- Canal 4 enpresak ez dio erantzun gure informazio eskeari, behin baino gehiagotan egin badugu ere.

Txostenaren egiturak lau atal ditu, egindako lanaren esparru orokorra eta ondorioak islatzen dituztenak. Atal horien osagarri, hiru eranskinetan informazioa eskaintzen da publizitate eta propa-

gandan gastuek izandako bilakaeraz, informazioa eskatu zitzaizen entitateez, bai eta aztertutako saioen zerrenda ere.

Azterketa lana 2000ko ekainean eta uztailean egin dute auditoretzako bi teknikarik eta auditore batek, Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Lan honetan parte hartu duten Nafarroako Gobernuak langile guztiek emandako laguntza eskertu nahi dugu.

IV. ONDORIOAK

Kontuan harturik egindako lanaren norainokoa eta mugak, ondotik azaltzen dira ondorio nagusiak.

PARLAMENTUAREN ESKARIARI DAGOKIONEZ (1998KO EKITALDIA)

Canal 4-n 1998an emandako saioen zerrenda, Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuarekin eta Nekazaritza Departamentuarekin zerkusia dutenena gainbegiratu dugu eta hauexek dira atera ditugun ondorioak:

Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentua

1998ko Fitur turismo azokaren laburpena eskaini zuen saioa, 348.000 pezetako kostua izan zuena aztertu dugu.

Gastua Departamentuak zuzenean kudeatzen du, eta zenbatekoa 500.000 pezetatik beherakoa denez –hau da, gastu txikia izanik– espedientean ez da ageri ordainagiria eta enpresak saioa eman zela egiaztatzeko luzatutako agiria besterik.

Nekazaritza Departamentua

Departamentuak Canal 4-ko saioengatik izandako gastuak Navarra de Servicios, S.A. (Naser-sa) enpresa publikoari egindako enkargu batetik heldu dira, "Nafarroako nekazaritzako elikagaien aldeko kanpaina berezi bat egiteko" 1998ko ekitaldian.

Espedientea zuzenean kudeatu zen Departamentutik, eta Nafarroako kalitatezko produktuak sustatzeko kanpaina bat Gabonetan, kontsumo garaia den aldetik, egiteko beharrarekin arrazoitu zen.

Espedientean gastu proposamena ageri da horren arrazoiekin batera, proposamena, goitik emanik, 5 milioikoa da eta kanpainaren enkargua enpresa publikoari egitea proposatzen da; horiei erantsirik aurkezten dira Canal 4-k Nasersari aurkeztutako faktura eta enpresa honek Departamen-

tuari aurkeztutakoa. Ez dago eskaintzarik ez eta aurretiko aurrekonturik ere.

Laburbilduz, berrikusiriko gastuak justifikaturik daude finantzen ikuspegitik, dagokion fakturaren bidez, eta haien izaeraren araberrako kontusailletara behar bezala egotzirik.

1999AN EMANDAKO PROGRAMAK

Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentua

1999ko Fitur turismo azokari buruzko laburpeneko programa bat -499.960 pezetako zenbatekoa duena- aztertu da.

Departamentutik zuzenean kudeatu da eta gastu txikia denez, hau da, 500.000 pezetatik beherakoa, espedienteetan faktura eta enpresak saioa eman izanari buruz luzatutko egiaztagiria baizik ez dira ageri.

Osasun Departamentua

Departamentuak kudeaturiko gastuak osasuna sustatzeko 16 saioen inguruak dira. Zenbateko osoa 10.115.200 pezetakoa da, eta saioak 1999ko martxotik ekainera eman ziren.

Saio hauek finantzatu ziren hauen bidez: Departamentuaren beraren kredituak -saio 1-, Lan Osasunaren Institutuarenak -6 saio- eta Nafarroako Osasun Institutuarenak -gainerako 6 saioak-.

Espedienteari hasiera eman zion Canal 4-k, 16 saio -bakoitzaren kostua 632.200 pezetakoa izanik- egin eta emateko aurkeztu zuen proposamen batek, bai eta lehendakaritza departamentuko komunikazio zerbitzuaren txosten batek ere, saio horiek justifikatzen dituen eta Osasun Departamentuaren eta enpresa horren artean hitzaremna bat izenpetzea proposatzen dituen.

Halere, zerbitzu hauek adjudikatu eta kontratatzeke ez ziren bete lege ezarritako prozeduraren funtsezko tramiteak. Horrek behartu zuen Nafarroako Gobernu adieraztera, jarduketa hauen inguruan 1999ko uztailaren hartutako erabakiaren bidez, "erabat deusezak direla, baliozkotuz zuzentzeko aukerarik gabe", Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta guztiendako Administrazio prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62.1 e) artikularekin bat. Zerbitzuak fede ona tartean zelakoan egiaz eman baziren ere, Administrazioari eskatzen dio Canal 4 enpresari kalteordainak ordaintzeko, hura arrazoirik gabe aberastea ekiditeko oinarritzako printzipioa betetzeko; horren ondorioz, erabaki horrek baimeana eman zuen enpresari horri 10 milioiko kalteordaina ordaintzeko saio horiek direla eta.

Saio horiek eman izanaren egaiztagiririk ez dago, baina fakturak aurkeztu egin ziren.

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua

Institutu honek Canal 4-ko saioetan egindako gastua lau erreportaje eta saio berezi bat egitetik eta Donejakue Bideari buruzko bideoak kopiatzetik heldu da, 150.000 pezetako zenbatekoarekin. Zenbateko horrek ez dirudi nahikoa saio horien ekoizpen kostuak estaltzeko.

Institututik tramitatu zen, eta gastu txikia zenez espedienteetan, funtsean, gastuaren baimena eta Canal 4-ren faktura baizik ez daude.

Ondorio gisa, aztertutako gastuak -ez baitira oso handiak- eta finantzen ikuspegi hutsetik dagokien fakturaren bidez justifikaturik eta haien izaeraren araberrako kontusailletara behar bezala egotzirik. Guztiarekin ere, gastuak arrazoizkoak direla justifikatzen duten aurretiko azterlanetan hutsuneak daude, bai eta fakturretako gastuen xehetasunetan eta saio horiek egiaz eman direla egiaztatzen edo babesten duen txostenean ere. Era berean, ez dago daturik kontraturiko saioen jabetza intelektualaz.

Halaber, eta ganbara honek beste txosten batzuetan eskatu izan duen bezala, espedienteetan ikusten da ez dagoela behar adina informazio bermatzeko enpresa publikoei egindako enkar-guen kontrol eta jarraipen egokia egiteko.

Azkenik, urriaren 19ko 307/1998 Foru Dekretuaren arabera, Lehendakaritzako Departamentuan zentralizatzen da publizitate arrunteko gastuen kontratazioa; dena dela, aztertutako espedienteetan ez da beti ageri baldintza hori bete en edo aintzat ez hartzeko justifikazioa.

EFIKAZIA ETA ERAGINKORTASUNA

Txosten honen II.3 idatz-zatian adierazten diren muga haiek galarazten digute iritzia ematea saio hauek emanez lortutako efikazia eta eraginkortasunaz.

Halere, zenbait iturritatik garrantzizko informazioak lortu dira, azterketa partziala besterik ez bada ere.

- Lehendakaritzako Komunikazio Zerbitzuaren txostenen arabera, Canal 4-k proposatzen dituen prezioak "onak dira, merkaturaren dauden ekoizpen eta antenako prezioekin alderaturik". Halere, espedienteetan ez da ageri baieztatzen hori berresten duen txosten edo azterlanik.

- Eskura dugun informazioarekin frogaturik dago saio horiek lan egunetan eman zirela, balizko ikus-entzule kopuru handienaren ordutegia

–21:30etik 23:30era–, eta horrek Canal 4 hautatzeko justifikazioa sendotzen du, saio horiek eman zitzakeen telebista bakarra baita, gainerakoek katean emititzen dutelako ordu horretan. Nolanahi ere, ez da modurik izan zehaztu edo zenbateste-ko saio horien ikus-entzule kopuru erreala, "Nafarroako Komunikabideen entzule kopuruaren azterlana" delakoak ez duelako saio zehatzik aztertzen, eta ez dugu eskura izan departamentuek eginiko bestelako txosten edo lanik.

• Nafarroan telebistako ikus-entzule kopuruaren bilakaerari dagokionez, CIES enpresak eginiko "Nafarroako Komunikabideen entzule kopuruaren azterlana" aipatutakoaren datuetatik, hauxe nabarmenduko genuke:

Ekitaldia	Canal 4-ko ikus-entzuleak	Ikus-entzule guztien gaineko %
1997	32.000	8,1
1998	41.000	10,6
1999	29.000	7,5

Aipatutako azterlanen arabera, ikus-entzuleen kopurua jeisteko arrazoia da 1998an Canal 4-k

Nafarroako lurralde osorako emititzen zuela, baina 1999an Iruñerriko baizik ez zuen egiten.

Asteko egun bakoitzeko izandako ikus-entzuleen kopuruari dagokionez:

Egunak	Canal 4-ko ikus-entzuleak 1998	Canal 4-ko ikus-entzuleak 1999
Lanegunak	45.000	30.000
Larunbatak	38.000	22.000
Igandeak	26.000	27.000

Alegia, Canal 4-ren ikus-entzuleen kopururik handiena lanegunetan izaten da.

Amaitzeko, ondoko taulan ikus daiteke "telebistaren ikus-entzulen kopurua ordutegiaren arabera". Ikus daitekeenez, kopururik handiena "gaueko" orduetan izaten da, eta ordu horietan, hain zuzen, Canal 4-k, oro har, bilakaera negatiboa du eta portzentajeetan ere askoz gutxiago agertzen da –ehuneko 8 1998an, ehuneko 4 1999an.

Orduak	1998			1999		
	Banakakoak guztira	Kanal ikusiena	Canal 4	Banakakoak guztira	Kanal ikusiena	Canal 4
Goizaldea (04:00etatik 08:00etara)	2.000	1.000	0	1.000	1.000	0
Goiza (08:00etatik 13:30era)	31.000	14.000	0	28.000	11.000	0
Bazkalondoa (13:30etik 17:00etara)	210.000	112.000	10.000	220.000	112.000	8.000
Arratsaldea (17:00etatik 21:00etara)	145.000	47.000	10.000	157.000	52.000	9.000
Gaua (21:00etatik 04:00etara)	306.000	131.000	25.000	292.000	115.000	12.000

Guztiaren ondorioz, eta amaierako **laburpen gisa**, ganbara honek adierazten du:

- Parlamentuaren eskariaren xede ziren gastuak identifikatu ahal izateko izandako zailtasunak. Kasu batzuetan, gasturik ez da izan, beste batzuetan geldiarazi dira, beste batzuetan ez dago alde handirik Administrazioak kontratatzen ohi dituenekin eta beste batzuetan erabilitako kudeaketa sistemak identifikatzeko aipatu prozesua oztopatzen dute. Zailtasun horiek areagotu egin ditu Canal 4 Televisión, S.L. Enpresak laguntzarik eman ez izanak Ganbera honi.

- Kreditu hauen xedeaz behar adinako informaziorik ez dugu izan, aurrekontuan prestatzeko garaian nola betetzean.

- Finantza azterketaren ikuspuntutik, gastu bakoitza bere fakturarekin aurkeztu da, eta behar bezala egotzirik dagokion kontusailera.

- Legez, gastu hauen kontratazioan aplikatze-koak diren prozeduraren pausuazorrotz bete behar dira, bai eta adjudikazioa legez ezarritako sistemekin bat egitea ere.

- Gastuari buruzko administrazio espedienteek indarra duten legeek ezarritako dokumentazio osoa izan behar dute; bereziki, eta aztertutako kasuetarako, hartutako erabakiak sostengatzen dituzten txosten edo azterlanen ingurukoak, legez-kotasun, arrazionaltasun eta gardentasun printzipioak kudeatzaile publikoen gidari izan daitezten.

- Lehendakaritzako Departamentuan publizitate gastuen kontratazioa eta aholkularitza zentralizatzekeo prozesua betetzea.

- Nafarroako Gobernuak egindako publizitate kanpainen egiazko eragina aztertzen duen azterlan edo txosten orokorra urtean behin, gutxienez egiteko egokitasuna, ahuleziak edo alderdi sendoak aztertu eta hobetu edo zuzentzeko hurrengo kanpainen.

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko abenduaren 4an.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

I. eranskina. Parlamentuaren eskariaren xede diren aurrekontuko lerroak, "Publizitate eta Propaganda gastuak (2262)"

Nafarroako aurrekontu orokorren bilakaera (1997-1999)

Departamentua	Proiektuaren izena	Lerroa	97ko aurrek.	98ko aurrek.	97-98, alde	99ko aurrek.	98koa, beterik
0	Prensa eta informazioa	00730-0	2.286.000	17.286.000	15.000.000	2.632.000	3.164.984
1	Sistemen kudeaketa eta zergadunekiko harremana	08080-6	10.000.000	30.000.000	20.000.000	15.000.000	11.435.080
2	Toki Administrazioko zuz. eta zerb. orok.	09460-2	805.000	15.805.000	15.000.000	8.506.000	40.254
3	Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza zuz. eta zerb. orok.	10630-9	7.850.000	24.350.000	16.500.000	25.080.000	9.874.694
4	Hezkuntza eta Kultura zuz. eta zerb. orok.	12540-0	14.500.000	28.100.000	13.600.000	28.100.000	20.529.709
5	Osasuneko zuz. eta zerb. orok.	15560-1	3.600.000	19.100.000	15.500.000	5.100.000	5.840.308
6	Herrilan, Garraio eta Komunikazioetako zuz. eta zerb. orok.	23810-8	200.000	15.250.000	15.050.000	1.000.000	1.003.423
7	Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura zuz. eta zerb. orok.	26350-1	7.000.000	22.000.000	15.000.000	15.000.000	16.084.748
8	Turismoaren sektorearen sustapena	30660-0	3.000.000	30.000.000	27.000.000	30.000.000	37.596.010
9	N.G.O.I.aren zuz. eta zerb. orok.	32210-9	522.000	15.522.000	15.000.000	10.600.000	8.006.154
Aurrekontuko lerroak			49.763.000	217.413.000	167.650.000	141.018.000	113.575.364
Publizitate eta propagandako gastua, guztira (2262)			238.994.000	471.394.000	232.400.000	367.069.000	331.392.199

2. eranskina. Entitate zirkularizatuen zerrenda.

a) Nafarroako Gobernua

Departamentuak	Erakunde autonomoak
Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua
Ekonomi eta Ogasun Departamentua	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua
Toki Administrazio Departamentua	Nafarroako Administrazio Publikoaren Ins.
Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza D.	Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua
Hezkuntza eta Kultura Departamentua	Nafarroako Lan Osasuneko Institutua
Osasun Departamentua	Nafarroako Emakumearen Institutua
Gizarte ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentua	Nafarroako Osasun Publikoaren Institutua
Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua	
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua	
Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua	

b) Canal 4 Navarra, S.L.

3. eranskina. CANAL 4-k emandako saioak, aztertuak

1998KO EKITALDIA

Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentua

• "Nafarroa: joatea itzultzea da" izeneko publie-rreportajea, 1998ko Fitur turismo azokan, 348.000 pezeta.

Nekazaritza Departamentua

"Nafarroako nekazaritzako elikagaiak sustatzeko kanpaina berezia", 1998ko ekitaldikoa, 5 milioi-ko zenbatekoarekin. Atal hauek zituen

• 4 saio berezi, "Pikillo piperra, Nafarroako zainzuria, Erronkariko gazta eta Nafarroako aretxea" gaien inguruan, sustapenerako 40 emanaldirekin.

• "Nafarroako zainzuria" espota, sustapenerako 120 emanaldirekin.

• "Erronkariko gazta", "La cocina de J.J. Castillo" saioaren babeslea, sustapenerako 20 emanaldirekin.

• "Jatorrizko deiturako ardoa", "Vamos a darle al piquillo" saioaren babeslea, sustapenerako 20 emanaldirekin.

• "Patxarana" eta "Pikillo piperra", albistegieta-ko kirol atalen babesleak.

1999KO EKITALDIA

Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentua

• 1999ko Fitur azokaren laburpena, 499.960 pezeta.

Osasun Departamentua

"Osasunaren sustapena": 16 saio osasunaren sustapenez, guztira, 10.115.200 pezeta; 45 minutuko saioak ziren eta 1999ko martxotik ekainera bitarte eman ziren, ostegunero. Saio hauen gaiak, Canal 4-k egindako proposamenaren arabera, hauexek ziren:

• Martxoa – Haurrak:

Gure haurraren esperoan

Titiko haurren elikadura

Haur asmadunak

Hautzaroko arazo bereziak

• Apirila. Zaharrak

Zahartzaroz gozatzen (1)

Zahartzaroz gozatzen (2)

Alzheimerrarekin bizi

Etxeko gaisoarendako zainketak

- Maiatza. Helduak

Menopausia: bizitzaren aro bat

Hezurretako arazoak

Bihotza zaintzen ikas dezagun

Nerbioak, lagun ala etsai

- Ekaina. Bizimodu osasuntsua

Elikadura osasuntsua, erraza eta merkea.

Kirola eta osasuna

Uda eta osasuna

Osasuna, nork bere esku

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua

1999. urtean lau erreportaje eta saio berezi bat egin eta Donejakue Bideari buruzko bideoak koptatzea, 150.000 pezetako zenbatekoarekin.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Ondoko alegazioak egin nahi ditut, horretarako emandako epean, "Canal 4 Navarra, S.L.n programa didaktikoak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak egindako gastuen efizientzia eta eraginkortasuna" dela-eta Kontuen Ganbarak egindako behin-behineko txostenari buruz:

1) Zabalkundeko saioak egin eta emateagatik Canal 4-ri egindako ordainketa Nafarroako Gobernuak onetsi behar zuen, baina agerikoa da ez zela hori egin, eta beraz ez dugu horri buruz ezer esatekorik; izan ere, ez zen alde zuzenetik egin beharreko kontratazioko administrazio espedienteak egin, eta telebistako saio horien sustatzaileak administrazio espedienteak abiarazi beharraz konturatu orduko, abian ziren saioak eta azaleratzen hasiak ziren enpresaren finantza arazoak, eta horrek ezinezkoa egiten zuen administrazio espedienteak abiaraztea. Halere, Canal 4-ri saio horiek ekoizti eta emateko mandatua eman baino lehen aztertu egin ziren bai komunikabidea –eta horren ondotik erabaki zen saioak egitea– bai kostuak, nahiz eta hori ez dagoen berariaz justifikatzeko modurik. Gauzak horrela, emandako saioei buruzko ohar tekniko batzuk egitea komeni da:

a) Ekoiztako telebista saioak Osasun Departamentuarenak dira bakar-bakarrik; horregatik, bada, nahiz eta horiek adjudikatzeko kontratazioko administrazio espedienterik abiarazi ez, emaitzak goitik behera asetu du Osasun Departamentua, eta saio horien bitartez bilatzen den zabalkundea ez da 1999ko emanaldiarekin agortzen; aitzitik, material hori hemendik aurrerako hezkuntza kanpainetan ere erabili ahal da egoki

irritiz gero; eta egin ere halaxe egin izan da beste toki telebista batzuetan.

Areago, Osasun Departamentuari Kontuen Ganbararen txostenean aipatzen diren saioen modukoak ekoiztea oraindik interesatzen zaiola esan daiteke, eta halatan, serie berri bat ari da prestatzen, departamentuaren ustez interes didaktiko ukaezina baitute.

b) Saio horien kostua onargarritzat jo daiteke, eta merketzat ere bai halako lanetan ohikoa denaren aldean. Horren lekuko dira antzeko zerbitzuetarako departamentuak eskatuta gaur egun bai eta abian diren ekimen berrietarako bertan ditugun aurrekontuak.

Halako ekoizpenetan ohikoa den kostuarekin bat etorritik, Canal 4-ri ordaindutakoaren puskarik handiena saioa ekoizti eta emateari dagokio, eta inola ere ez saioetan parte hartu zuten Osasun Departamentuko langileen etekin eta ordainsariei.

Horrela, esate baterako, 1999an saio horietako bat ekoizti eta emateko behar izan zen diruarekin, gaur egun –Kontuen Ganbararen txostenean adierazitako prozedurari jarraikiz– haren iraupearen herena izanen zuen saioa finantzatzeko zen soilik.

c) Adjudikazioko administrazio espedienteak abiarazi ez arren, garbi dago Nafarroako Foru Komunitatean Canal 4-ren bitartez soilik egin zitekeela zabalpena, eta hilabete batzuk lehenago zabalpena handiagoa izanen zen arren, gainontzeko telebistek ez dute ikus-entzule gehieneko ordutegietan –horiek erabili baitziren saioak emateko– Nafarroarako soilik emititzen.

d) Azkenik, eraginkortasun eta efizientzia maila neurtzeko aipatzen diren arazoei buruz, esan beharra dago txostenean bertan jasotzen dela departamentu honek saioak eman ziren egunei eta edukiei buruz, bai eta izan zuten eraginari buruz ere, emandako informazioa.

Zalantzan jarri ahal da neurketa, baina ez osasun zabalkundearen aldetik duen eraginkortasuna, zeren, ikusi ahal izan den moduan, Osasun Departamentua saioen erabilera osagarriak egiten ari da zabalkundearen esparrua handitzeko asmoz, bai telebista batzuen bitartez bai osasun etxeetako ikus-entzunezko baliabideen bitartez. Beti ere, neurgarria izan ala ez, ezin dira zalantzan jarri ez saioen izaera didaktikoa ez –gaur egungo gaien zabalkundea egiten den aldetik, osasun hezkuntzan laguntzen duten aldetik eta aztura osasungarriak sustatzen dituzten aldetik– horien eraginkortasuna ere.

2) Saio horiek sortutako gastuak Osasun Departamentuaren eta haren menpeko erakunde autonomoen 1999ko aurrekontuko hainbat kontusailen kargura ordaindu ziren; horrenbestez, ez dute zerikusirik izan 1998ko publizitate eta propagandarako aurrekontu-lerroek izandako gorakadan –horregatik eskatu zen hain zuzen ere txostena.

Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilaria:
Santiago Cervera Soto

"Canal 4 Navarra, S.L.n programa didaktikoak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak egindako gastuen efizientzia eta eraginkortasuna" dela-eta Kontuen Ganbarak egindako behin-behineko txostena aztertuta, ondoko oharrak egin nahi ditut:

1) Txostenaren II. Atalean –Nafarroako Gobernuak Canal 4 TV-n egindako gastuen deskripzio orokorra–, lehen ondorioa ematean hain zuzen ere, esaten da "1998ko aurrekontuetan eta, zehazki, aurrekontuko "Publizitate eta propaganda (2262) gastuak" kontzeptuan, hasierako kredituek 1997an baino 232 milioi gehiago egiten zutela, eta 1999an, ordea, 104 milioi gutxiago".

Orobat esaten da "aldaketa hauek departamentu guztietan ageri direla".

Atal bereko 2. ondorioan esaten da "1997ko aurrekontuarekiko aurrekontua prestatzean 15 milioi pezeta inguruko igoera izan zutenak zein ziren zehaztu zela".

Ondorio horretan orobat esaten da "1998ko betetze maila ehuneko 65ekoa baizik ez dela izan".

Txostenaren 1. eranskinaren arabera, "Turismo sektorearen sustapena" aurrekontu-lerroak 27 milioi egin zuen gora 1997tik 1998ra bitartean; 1999an, berriz, bere horretan geratu zen, eta 1998ko betetze maila ehuneko 125ekoa izan zen.

2) IV. Atalean –Ondorioak–, Fitur turismo azokaren bi laburpen saio –1998koa eta 1999koa– aipatzen dira, eta bertan esaten da espedienteen ordainagiria eta enpresak saioa eman zela egiaztatzeko luzatutako agiria baizik ez direla jasotzen.

Atal horretan bertan, "Eraginkortasuna eta efizientzia" azpiatalaren aurretik eta egindako lanaren azken laburpen gisa, hauxe esaten da besteak beste: "Azkenik, urriaren 19ko 307/1998 Foru Dekretuaren arabera, Lehendakarietzako Departamentuan zentralizatzen da publizitate arrunteko gastuen kontratazioa; dena dela, aztertutako espedienteetan ez da beti ageri baldintza hori bete den edo aintzat ez hartzeko justifikazioa."

Aipatutako bi espedienteetan, fiskalizazio txostenean esandakoaz gainera, Prentsa Kabineteko buruak egindako bi txosten jasotzen dira, kontratazioa kabinetearen bitartez egitea beharrezkoa ez dela esaten dutenak.

Txostenarekin batera ondoko agiriak doaz:

- Prentsa Kabineteko buruak 1998ko apirilaren 21ean egindako txostena

- Prentsa Kabineteko buruak 1999ko martxoaren 24an egindako txostena

Iruñean, 2000ko azaroaren 16an

Sinatua: José Miguel Gamboa

Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abenduaren 18an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Tuterako Udalari buruz egin-dako fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2000ko abenduaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (12. or.).
- II. Helburua (12. or.).
- III. Norainokoa (13. or.).
- IV. Iritzia (13. or.).
 - IV.1. Aurrekontuaren likidazioa (14. or.).
 - IV.2. Ondare-egoeraren agerpena (14. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (14. or.).
 - IV.4. Kontuen Ganbararen gomendioen jarraipena (14. or.).
 - IV.5. Erakunde autonomoak (14. or.).
 - IV.6. 1999ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa (14. or.).
- V. Finantza egoerak 1999ko abenduaren 31n (15. or.).
 - V.1. Tuterako Udala (15. or.).
 - V.2. Erakunde autonomoak.- 1999ko ekitaldia (19. or.).
- VI. Iruzkina, ondorio eta gomendio orokorrak (20. or.).
 - VI.1. Kontabilitatea, aurrekontuak eta barne-kontrola (20. or.).
 - VI.2. Administrazio-kontratazioa (20. or.).
 - VI.3. Transferentzi gastuak (20. or.).
 - VI.4. Ibilgetua eta inbentarioa (20. or.).
 - VI.5. Finantza-kontuak eta diruzaintza (21. or.).
 - VI.6. Langileak (21. or.).

VI.7. Tributuen dirusarrerak eta zordunak (22. or.).

VI.8. Hirigintza (23. or.).

VI.9. EUROaren hastapenak (24. or.).

VI.10. Gorabeherak (24. or.).

VI.11. Erakunde autonomoak (24. or.).

Gehigarria: Finantza-egoera 1999ko abenduaren 31n (26. or.).

I. Eranskina. Tuterako Udalaren organigrama 1998ko abenduaren 31n (30. or.).

II. Eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa (31. or.).

I. SARRERA

Tuterak, Nafarroako Erriberako hiriburuak, 1999ko urtarrilaren 1ean, 27.788 biztanle zituen udal-errolan; beraz, Foru Komunitateko bigarren hiria da biztanletan.

Udalak bere jarduerak burutzeko ondoko entitate autonomoak (EA) ditu: Uren Udal Batzarra eta Castel-Ruiz Kulturgunea.

Udala, bestalde, Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatearen barruan dago, hiri-hondakinak tratatzeko, eta baita Eder Partzuergoan ere; Erribera bere osotasunean garatzeko erakundea da hori.

Hauek dira udalaren eta haren erakunde autonomoen 1999ko kopururik garrantzitsuenak (oraindik bateratu gabeak):

	Betetako gastuen aurrekontua (milioitan)	Betetako dirusarreraren aurrekontua (milioitan)	Langileak 1999-12-31n
Udala	3.113	3.705	291
Uren Batzarra	339	374	19
Castel Ruiz	157	157	22

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari jarraituz, bai eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari ere, Tuterako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1999ko ekitaldiko kudea-

keta ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu; halaber, ekitaldi horretako gastu eta dirusarrerara aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aurretik aipatutako legeek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak (abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretua), administrazio-kontratazioari nahiz hirigintza-kudeaketari buruzko arauak (bereziki, ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea) eta Nafarroako toki-enteei orokorki aplikatzekoak zaizkien gainontzeko arauak.

1998ko irailaren 21eko 270, 271, 272 foru dekretuetan dago ezarrita kontabilitate eta aurrekontuei buruzko araubide juridikoa. Lehenengo dekretua aurrekontu eta gastu publikoei buruzkoa da, bigarrena aurrekontuen egiturari buruzkoa, eta hirugarrena, berriz, kontabilitate instrukzio orokorra. Dekretu horiek aplikatzea borondatezkoa zen 1999an, eta nahitaezkoa 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Tuterako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.
- 1999ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera islatzea, oro har onartzen diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.
- Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon den.
- Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoera 1999ko abenduaren 31n.
- Nafarroako Kontuen Ganbarak 1998ko ekitaldiari buruz egindako fiskalizazio-txosteneko gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganbarak Tuterako Udalaren 1999ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Tuterako Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarrita dauka eta erakunde autonomoek ere badute kontabilitate orokorreko aplikazioa.

Udalak badauka ekitaldian egindako jarduera jasotzen duen Kontu Orokorra. Bertan, iruzkin eta ondorio orokorrez gain, ondoko hauek ere biltzen ditu: ikuspuntu ekonomiko eta funtzionaltik anali-

zatatuko aurrekontuaren betetzeari buruzko eranskinak; egoeraren balantzea; gai garrantzitsuenak zehaztea, hau da, aurrekontuaren emaitzak eta diruzaintzako gerakina, bai eta itxitako ekitaldien egoera. Kontu Orokor hori erakunde autonomoetako informazioarekin eta udalaren eta haren erakunde autonomoen arteko egoera bateratuarekin osatuta dago.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta arauak jarraituz burutu dugu lana eta halaber, egoeraren arabera beharrezkotzat jo ditugun frogak guztiak ere egin ditugu.

Udalari eta haren erakundeei buruzko lanak hauxe izan du arretagai: dirusarrerari eta gastuei buruzko atal ekonomikoak, abenduaren 31ko egoeraren balantzea berrikustea eta antolaketari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertzea.

Txostenak sei atal ditu, eta horietan Tuterako Udalaren eta haren erakundearen antolaketa, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko egokitzat jotzen ditugun helburu, iritzi, ondorio eta gomendio orokorrak biltzen dira, batez ere. Atal horiez gain bada gehigarri bat, entitateak 1999ko abenduaren 31n duen finantza egoerari buruzkoa, eta bi eranskin, data horretako entitatearen organigramari eta txostenean erabilitako ratioei buruzkoak.

Organigramari dagokionez, zehaztu beharra dago 1999ko uztailean bere agintaldia hasi zuen udalbatzari dagokiola.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei.

IV. IRITZIA

Egindako fiskalizazioaren esparruan, Tuterako Udaleko 1999ko ekitaldiko finantza-egoera bateratuaren orriak aztertu ditugu. Egoera-orri horiek udalaren ardurapean burutu ziren, eta laburtuta bildu ditugu txosten honetako V. atalean.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzia agertuko dugu:

IV.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA DELA-ETA

1999ko aurrekontuaren likidazioaren egoerak ongi agertzen ditu ekitaldiko dirusarrera eta gastuak, kobratzeke dauden eskubideak, ordaintzeke dauden betekizunak eta baita 1999ko abenduaren 31n dagoen diruzaintzako gerakina ere.

IV.2. ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

1999ko abenduaren 31ko egoera balantzeak nahiko ongi agertzen du udalaren ondare egoera. Hona salbuespenak:

- Inbentarioa gaurkotzen –1994ko data baitu– eta kontabilitate-balioekin bateratzen ari dira, bai eta ibilgetuaren amortizazio metatuaren balioespenaren gaurkotzea ere.

- Ez dira kontuan hartu egungo pentsio-sistemak sorrarazten dituen betebeharrak aktuarialak.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, Tuterako Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun printzipioari jarraituz egiten da. Salbuespenak dira berrikusitako inbertsioak egiterakoan, batez ere epeen kontrolari buruz txostenak agertzen dituenak.

IV.4. KONTUEN GANBARAK EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, esan daiteke aurreko txostenetako gomendio nagusiak bete direla, nahiz eta ezarri gabe dauden atal honen bukaeran aipatzen diren gintza jakin batzuk.

IV.5. ERAKUNDE AUTONOMOAK

Udalaren erakunde autonomoen –Uren Batzarra eta Castel Ruiz Kulturgunea– urteko kontuek oro har ongi agertzen dute 1999ko abenduaren 31 arte egindako jarduera eta egoera ekonomiko-finantzarioa.

IV.6. EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 1999KO ABENDUAREN 31n

Tuterako Udalak eta haren erakunde autonomoek, biek batera, 1999ko abenduaren 31n, honako egoera erakusten dute: diruzaintzan 593 milioitako gerakin positiboa (55ekoa 1998an), epe luzerako 2.621 milioitako zorpetzea (2.821 1998an), ehuneko 5eko zorpetze-maila (ehuneko 6koa 1998an) eta ehuneko 21eko aurrezpen garbia (ehuneko 10ekoa 1998an).

Aurreko datuek udalaren finantza-egoera hobetu dela erakusten dute, 1998ko txostenean agertzen zenarekin erkatzen badugu. Hobekuntza hori batez ere diruzaintzako gerakinean eta zorpetze-mailan ikusten da.

Hobekuntza honen arrazoa, batez ere, Bideragarritasunerako Plan Finantzarioa zorrotz betetzean (finantza gastuak –aurrekontuaren 3. kapituluak–36 milioi pezeta jaitsi dira 1998tik hona), tributu bidezko dirusarrerak nabarmen igotzean (1, 2 eta 3. kapituluetakoa aitortutako eskubideak 331 milioi pezeta igo dira 1998tik) eta transferentzia bidezko dirusarrerak 299 milioi pezeta igotzean (4 eta 7. kapituluak) egon daiteke.

Udalak, udala den aldetik, oraindik diruzaintzako gerakin positiborik sortu du, ondoko taulan ikus daitekeen bezala (zenbatekoak milioitan):

	Zenbatekoa
Udala	323
Uren Batzarra	268
Castel-Ruiz Kulturgunea	2,5
Diruzaintzako gerakin bateratua	593
Gastu orokorretarako	563
Atxikitakoa	30

1998an negatiboak ziren gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin bateratua (-73 milioi pezeta) eta udalaren gerakin osoa (-171 milioi pezeta).

Laburpen eta ondorio nagusi gisa, honako hau esan dezakegu:

- Udalak behar bezala kudeatzen ditu aurrekontuak; hala ere, prozedura aldiro hobetzearen, beharrezkoa du:

- a) Aurrekontu sistema eraberritzeko bitartekoak ezartzea, jardueraren helburu eta adierazleak jasoz eta kudeaketan lortutako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia maila aztertu eta neurtzeko prozedurak ezarriz.

- b) Inbertsioak egiteko epeei buruzko kontrola areagotzea.

- c) Erakunde autonomoen esparruan kontu-hartzailetza funtzioa osatzea, era berean indartuz a posteriori egin beharreko jarduera eta barne-auditoretzako unitate gisa egiten duen jarduera ere.

- d) Beharrezkotzat jotzen da sektore publikoko kontabilitate plan orokorrean zehazten den urteko oroit-idazkia egitea.

- Finantza-egoerari dagokionez, azken ekitaldietako egoera positiboa mantentzen da. Halere, udalak bere Bideragarritasunerako Plan Finantzia-

rioan ezarritako aurrekontu-zorroztasunaren politika mantendu behar du, batez ere kontuan hartuz zorpetzeko ahalmena, maileguen amortizaziorik ez dagoen epeen bukaera eta zenbait errekurtsoren abaguneko izaera. Nabarmenezkoa da Bideragarritasunerako Plan Finantziarioa zorrotz ari dela betetzen.

- Foru Komunitatearen esparruan, Udal Montepioari behin betiko irtenbidea bilatzea komeni da.

V. 1999KO ABENDUAREN 31KO FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

Atal hau osatzen dute ondoko finantza egoera-orriek:

- Tuterako Udala: egoeraren balantzea 1999ko abenduaren 31n, 1999ko aurrekontuaren likidazioa

zioa kapitulu ekonomikoa, eta diruzaintzako gerakina 1999ko abenduaren 31n.

- Erakunde autonomoak: 1999ko aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera.

Konparazio baterako, 1998ko ekitaldiko hainbat datu ere eman ditugu. Nabarmenezkoa da 1999ko zenbatekoak udalaren kontuen plan berriaren arabera sailkatu direla (horri buruzko foru araubidera egokituta, hau da, 1998ko 270, 271, 272 eta 273 foru dekretuetara). 1998ko zenbatekoak ez dira kontabilitate plan berrira egokitu, baina aldaketek ez dute eragin handirik gastuak eta dirusarrerak sailkatzeko kapituluetan, salbu eta dirusarreraren 1 eta 2. kapituluak (zuzeneko eta zeharkako zergak) ukitzen dituzten birsailkapenetan, VI.7.1. atalean batera jorratzen baitira

V.I. TUTERAKO UDALA

V.1.1. 1999-12-31ko balantze egoera

AKTIBOA		
Izena	Zenbatekoak (pezetak, milakotan)	
	1998	1999
IBILGETU MATERIALA	6.869.002	7.002.740
Lurrak eta ondasun naturalak	1.064.891	1.034.666
Etxeak eta bestelako eraikinak	5.514.440	5.648.782
Makinak, instalazioak eta tresnak	66.373	67.913
Garraio elementuak	84.810	95.788
Altzariak	63.821	75.499
Infomazio-prozesuetarako ekipoa	63.066	68.492
Espezializaturiko instalazio konplexuak	11.600	11.600
IBILGETU EZ-MATERIALA	40.000	40.000
Beste ibilgetu ez-materiala	40.000	40.000
INBERTSIOAK ERABILERA OROKORRERAKO ONDASUN ETA AZPIEGITURETAN	1.448.552	1.685.832
Lurrak eta ondasun naturalak	1.400.768	1.638.049
Ondare historikoa	47.783	47.783
INBERTSIOAK AZPIEGITURA ETA ONDASUN NATURALETAN	2.630.997	2.630.997
Herri lurrak eta herri ondasun naturalak	2.452.700	2.452.700
Azpieguturak eta herri ondasunak	178.297	178.297
IBILGETU FINANTZARIOA	1.000	1.000
Obligazioak, bonoak eta errenta finkoko beste inbertsio batzuk	0	0
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak	1.000	1.000
ZORDUNAK	768.241	854.311
Aitorturiko eskubideengatiko zordunak, indarreko aurrekontuak	406.936	478.525
Aitorturiko eskubideengatiko zordunak, itxitako aurrekontuak	351.129	359.421
Ogasun Publikoa: jasandako BEZa	2.807	0
Ogasun Publikoa: BEZa dela-eta, zorduna	0	249
Eratutako gordailuak	54	9.300
Emandako aurrerakin eta maileguak	3.786	5.311

Izena	Zenbatekoak (pezetak, milakotan)	
	1998	1999
Kutxa finkoko aurrerakinak	34	0
Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak, formalizatzea	364	1.499
Zordunak, BEZa dela-eta	336	6
Arrekontukoak ez diren beste zordunak	2.795	0
KONTU FINANTZARIOAK	149.136	456.376
Kutxa	1.871	1.729
Bankuak eta kreditu erakundeak. Kontu operatiboak	106.673	161.941
Bankuak eta kreditu erakundeak. Dirubilketa murrizt. kontuak	39.646	28.022
Bankuak eta kreditu erakundeak. Kontu finantzarioak	946	264.683
EPEKATZEAREN DOIKETAK (AKTIBOA)	8.247	0
Aurreratutako gastuak	0	0
Geroratutako kobrantzak	8.247	0
APLIKATZEKE DAUDEN EMAITZAK		
Aplikatzeko dauden emaitzak		
AKTIBOA, GUZTIRA	11.915.175	12.671.256
AKTIBOKO ORDENA-KONTUAK	846.105	990.171
Gordailuko baloreak	637.894	702.079
Geroratze eta zatikatzearen berme gisa eskainitako dokumentuak	699	699
Diruzaintza: Jasotako baloreak	207.513	243.909
Diruzaintza: Zorpekoaren ziurtagiria	0	43.484

PASIBOA		
Izena	Zenbatekoak (pezetak, milakotan)	
	1998	1999
ONDAREA ETA ERRESERBAK	7.533.958	7.895.995
Autonomi Erkidegoenak	239.316	584.282
Enpresa pribatuenak	15.000	15.000
KAPITAL DIRULAGUNTZAK	254.316	599.282
Autonomi Erkidegoenak	239.316	584.282
Enpresa pribatuenak	15.000	15.000
HORNIDURAK	0	352.000
Hornidura – Kobratzen zailak diren zordunak	0	352.000
EPE LUZEKO ZORRAK	2.649.395	2.457.977
Epe luzeko maileguak	873.412	741.026
Epe luzeko barneko maileguak	1.755.982	1.716.951
EPE LABURREKO ZORRAK	848.214	634.995
Aitorturiko betebeharren hartzekodunak. Indarreko aurrekontua	48.995	8.476
Aitorturiko betebeharren hartzekodunak. Itxitako aurrekontuak	103.585	107.122
Agindutako ordainketengatiko hartzekodunak. Indarreko aurrekontua	480.549	379.965
Agindutako ordainketengatiko hartzekodunak. Itxitako aurrekontuak	82.330	51.187
Dirusarrerak itzultzeagatiko hartzekodunak	1.668	3.000
Ogasun Publikoa, kontzeptu fiskalengatik hartzekodun	42.593	39.422

Izena	Zenbatekoak (pezetak, milakotan)	
	1998	1999
Gizarte Segurantzaren hartzekoduna	2.124	1.997
Ogasun Publikoa, jasanarazitako BEZa	43.850	0
Ogasun Publikoa, BEZarengatik hartzekoduna	0	0
Jasotako gordailuak	93	93
Jasotako aurrerakin eta maileguak	0	0
Funtzionarioek gizarte-aurreikuspeneko entitateak	0	0
Aurrekontuz kanpoko ordainketak formalizatzea	245	3.457
Hartzekodunak, BEZa dela-eta	2.807	899
Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak	20.749	10.537
Epe laburreko fidantzak	18.570	28.784
Epe laburreko fidantzak. Probetx. unit.	56	56
APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK	3.430	738
Aplikatzeko dauden dirusarrerak	3.361	704
Aplikatzeko dauden bestelako kontusailak	68	34
EKITALDIKO EMAITZAK	362.037	560.628
Ekitaldiko emaitzak	362.037	560.628
EPEKATZEAREN DOIKETAK (PASIBOA)	263.825	169.641
Aurreratutako kobrantzak	263.825	169.641
PASIBOKO BESTELAKO KONTUAK	0	0
Formalizatzea	0	0
PASIBOA, GUZTIRA	11.915.175	12.319.256
PASIBOKO ORDENA-KONTUAK	846.105	990.171
Baloreak formalizatzea	11.427	0
Baloreen gordailugileak	626.467	702.079
Geroratz. eta zatikatz. bermatzeko dokumentuen gordailugileak	699	699
Jasoagirietan gauzaturiko eskubideak	207.513	243.909
Zorpekoaren ziurtagirietan gauzaturiko eskubideak	0	43.484

V.I.2. Udalaren aurrekontuaren likidazioa. 1999ko ekitaldia

(pezetak, milakotan)							
Dirusarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin-betiko aurreikuspena	Eskubide kitatuak	Dirubilketa likidoa	Kobratzeke	Betetze maila %
1. Zuzeneko zergak	821.800	0	821.800	971.423	699.943	271.480	118
2. Zeharkako zergak	135.000	37.375	172.375	335.305	288.428	46.877	194
3. Tasak eta bestelako dirusar.	333.325	20.644	353.969	403.050	363.248	39.802	114
4. Transferentzia arruntak	1.207.307	93.226	1.300.533	1.433.401	1.356.922	76.479	110
5. Ondare dirusarrerak	176.935	0	176.935	188.774	172.604	16.170	107
6. Inbertsio errealak besterentzea	304.850	18.445	323.295	83.233	83.233	0	26
7. Kapital transferentziak	379.850	228.893	608.743	290.129	262.412	27.717	48
8. Finantza-aktiboak	0	(408.907)	(408.907)	0	0	0	
9. Finantza-pasiboak	80.000	584.340	664.340	0	0	0	0
Dirusarrerak, guztira	3.439.067	574.016	4.013.083	3.705.315	3.226.790	478.524	92
1998ko dirusarrerak, guztira	3.046.289	677.018	3.723.306	3.320.594	2.913.658	406.936	89
(pezetak, milakotan)							
Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin-betiko aurreikuspena	Aitorturiko betebeharrak	Ordainketa likidoak	Ordain-tzeke	Betetze maila %
1. Langileen ordainsariak	1.307.502	63.647	1.371.149	1.333.100	1.321.767	11.333	97
2. Ondasun arrunten. eta zerb. g.	947.644	6.952	954.596	867.250	690.474	176.776	91
3. Finantza-gastuak	116.152	(17.266)	98.886	87.232	87.216	16	88
4. Transferentzia arruntak	226.176	91.311	317.487	284.490	232.191	52.299	90
6. Inbertsio errealak	744.700	372.831	1.117.531	425.576	292.822	132.754	38
7. Kapital transferentziak	20.000	49.940	69.940	32.546	23.057	9.488	46
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	76.894	6.600	83.494	82.611	76.838	5.773	99
Gatuak, guztira	3.439.067	574.016	4.013.083	3.112.806	2.724.364	388.441	78
1998ko gastuak, guztira	3.046.289	677.018	3.723.306	3.198.520	2.668.976	529.544	86

V.I.3. Udalaren diruzaintzako gerakinaren egoera 1999-12-31n

		Zenbatekoak (pezetatan)	
Kodea	Kontuak	1998	1999
1	(+) Ekitaldi bukaeran kobratzeke dauden zordunak	528.057.826	501.572.562
	Dirusarreraren aurrekontukoak. Indardun aurrekontua	406.935.740	478.524.477
	Dirusarreraren aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	351.129.378	359.421.206
	Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoak	10.176.066	16.365.505
	Epekatzearen doiketak	8.246.517	0
	Ken kobratzen zailak diren saldoak	-245.000.000	(352.000.000)
	Ken aplikatzeke dauden egindako dirusarrerak	-3.429.875	(738.626)
2	(-) Ekitaldi bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak	848.214.475	634.995.345
	Gastu aurrekontukoak. Indardun aurrekontua	529.543.950	388.441.197
	Gastu aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	185.915.463	158.308.872
	Dirusarreraren aurrekontukoak	1.667.652	3.000.051
	Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoak	112.461.075	85.245.225
	Jasotako fidantzak eta gordailuak	18.626.335	0
3	(+) Ekitaldi bukaeran fondo kikidoak diruzaintzan	149.136.035	456.375.823
	DIRUZAINZA GERAKINA, GUZTIRA	-171.020.614	322.953.040
	Diruzaintzako gerakin atxikia	108.062.353	23.301.991
	Diruzaintzako gerakin orokorra	-279.082.967	299.651.049

V.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK. 1999KO EKITALDIA

V.2.1. Uren Batzarra. Aurrekontuaren betetze maila (pezetak, milakotan)

Dirusarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin-betiko aurreikuspena	Eskubide kitatuak	Dirubilketa likidoa	Kobratzeke	Betetze maila %
3. Tasak eta bestelako dirusar.	348.380	0	348.380	336.877	268.145	68.732	97
4. Transferentzia arruntak	0	0	0	365	0	365	
5. Ondare dirusarrerak	3.100	0	3.100	4.549	4.549	0	147
6. Inbertsio errealak besterentzea	100	0	100	20	0	20	20
7. Kapital transferentziak	197.647	65.771	263.418	32.215	32.215	0	12
8. Finantza-aktiboak	0	32.306	32.306	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	41.403	20.003	61.407	0	0	0	0
Dirusarrerak, guztira	590.630	118.080	708.710	374.026	304.909	69.117	53
1998ko dirusarrerak, guztira	310.928	183.048	493.976	384.071	301.626	82.445	78

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin-betiko aurreikuspena	Aitorturiko betebeharrak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeke	Betetze maila %
1. Langileen ordainsariak	110.227	0	110.227	106.089	103.808	2.281	96
2. Ondasun arrunten. eta zerb. g.	149.410	0	149.410	123.047	92.207	30.840	82
3. Finantza-gastuak	4.973	0	4.973	1.486	1.486	0	30
4. Transferentzia arruntak	0	0	0	0	0	0	0
6. Inbertsio errealak	303.650	118.080	421.730	90.714	72.135	18.579	21
7. Kapital transferentziak	8.000	0	8.000	3.666	3.666	0	46
9. Finantza-pasiboak	14.370	0	14.370	14.366	14.366	0	99
Gastuak, guztira	590.630	118.080	708.710	339.368	287.668	51.700	48
1998ko gastuak, guztira	310.928	183.048	493.976	351.559	288.767	62.792	71

V.2.2. Castel-Ruiz Kulturgunea. Aurrekontuaren betetze maila (pezetak, milakotan)

Dirusarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin-betiko aurreikuspena	Eskubide kitatuak	Dirubilketa likidoa	Kobratzeke	Betetze maila %
3. Tasak eta bestelako dirusarreak	20.820	8.409	29.229	23.500	21.000	2.500	80
4. Transferentzia arruntak	128.500	5.885	134.385	133.776	126.330	7.446	99
5. Ondare dirusarreak	300	0	300	69	69	0	23
Dirusarrerak, guztira	149.620	14.294	163.914	157.345	147.399	9.946	96
1998ko dirusarrerak, guztira	144.420	9.988	154.208	144.627	134.927	10.330	94

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin-betiko aurreikuspena	Aitorturiko betebeharrak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeke	Betetze maila %
1. Langileen ordainsariak	78.870	2.150	81.020	80.345	78.592	1.753	99
2. Ondasun arrunten. eta zerb. g.	61.225	13.194	74.419	70.538	58.184	12.354	95
4. Transferentzia arruntak	6.375	(1.050)	5.325	4.902	4.031	871	92
6. Inbertsio errealak	3.150	0	3.150	1.561	1.561	0	49
Gastuak, guztira	149.620	14.294	163.914	157.345	142.367	14.978	96
1998ko gastuak, guztira	144.420	9.988	154.208	144.627	133.783	10.844	94

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIO NAGUSIAK

Ondoren aurkeztuko ditugu udalaren eta haren erakunde autonomoen antolamendua eta barne kontroleko sistema hobetzeko iruzkin eta ondorio garrantzitsuenak, bai eta egokitzat jo ditugun gomendio orokorrak ere. VI.1-tik VI.10-ra bitartekoak udalari buruzkoa dira, eta VI.11, berriz, erakunde autonomoei buruzkoa.

VI.1. KONTABILITATEA, AURREKONTUAK ETA BARNE KONTROLA

Orokorrean, ondoko hauek gomendatzen ditugu:

- *Aurrekontuko inbertsioetarako zenbatekoak kudeaketa-ahalmen errealetara doitu eta hurbiltzea, kreditu-gerakinetako saldo handiak hurrengo ekitaldietako aurrekontuetara ez gehitzearren.*

- *Aurrekontuak hobetzeko prozesu bat sustatzea, udal barrutiek errekurtsio publikoak erabiltzean lortzen duten eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia maila aztertzea ahalbidetuko duten helburu eta adierazleetan oinarrituz. Hori guztia udal kudeaketaren plangintza ekonomikoaren prozesuaren barruan eginen da, giza eta gauza baliabide egokiek.*

- *Erakunde autonomoen kudeaketan, kontuhartzaitza lana sistematikoki aplikatzea.*

- *Udalaren kontu-hartzaitzak a posteriori egin beharreko lana bultzatzea, bai fiskalizazioaren aldetik eta baita prozedurak aztertu eta hobekuntzak ezartzearen aldetik ere.*

- *Alor ekonomikoko arduradun bat izendatzeko aukera aztertzea. Pertsona hori dauden zerbitzuak zuzendu eta koordinatzeaz arduratuko da; horrela, besteak beste, kontu-hartzaileak barne kontrolaren eta udal kontabilitatearen arduradun gisa dituen zereginetan jarriko du arreta.*

- *Sektore publikoaren kontabilitateko plan orokorrak ezarritako urteko txostena egitea.*

VI.2. ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

Atal honetan bereizten dira, batetik, zerbitzuak emateko, hornitzeko eta erosketak egiteko kudeaketa, eta bestetik, inbertsioak.

VI.2.1. Erosketak eta zerbitzuak emateko eta hornitzeko kontratuak

Aztertutako laginaren arabera eta orokorrean, hauxe gomendatzen dugu:

- *Erosketa Batzordea eratzea; erosketa gaie tan alorrei aholkuak eman eta horiek koordinatze ko ardura duen udal organoa izanen litzateke.*

- *Pleguetan hautapen irizpideei emandako puntuak banatzeko formula edo azpi-irizpideak zehaztuko dira.*

- *Hautapen prozesuetan aurkeztutako proposamenen erregistroko ziurtagiria espedienteetan jasotzea.*

- *Zenbait gastu aurrekontuan, gastuen aurrekontuko 2. edo 6. kapituluari, sartzeko irizpideak finkatzea.*

VI.2.2. Inbertsioak

Aztertutako laginetik ondoko akatsak ondorioztatu ditzakegu:

- *Espedienteetan ez da jasotzen udal erregistroak hautapen prozesuan aurkeztutako eskaintzei buruzko ziurtagiririk.*

- *Ez da zehatz eta zorrotz begiratu epe hauek betetzen diren:*

a) *Obren hasiera.*

b) *Obren bukaera.* Antzeman dugunez, berrikusitako obra ia guztiak ezarritako epeak bukatu eta askoz beranduago bukatu dira, pleguetan ezarritako zehapen-bideak aplikatu gabe.

c) *Ziurtagiriak ematen direneko aldizkotasuna, pleguetako baldintzei jarraikiz.*

d) *Ziurtagirien ordainketetan atzerapenak egoten dira eta ondorioz, korrituak eragiten dituzte. Hala, 1999an 5 milioi ordaindu dira gutxienez kontzeptu horregatik.*

Ondorioz, esan dezakegu, udalak, oro har, kontratazio-arauegia betetzen duela, baina halere aurreko lerrokatetan aipatutako legearen alderdiak bete behar ditu eta batez ere, obren epeak betetzen diren askoz hobeki kontrolatu behar du.

VI.3. TRANSFERENTZIA GASTUAK

Alor horretan gomendatzen dugu irizpide zehatzak ezartzeko aurrekontuko 2. kapituluari zein 4. kapituluari gastuak egozteko (sailkapen ekonomikoa).

VI.4. IBILGETUA-INBENTARIOA

Udalaren inbentarioa gaurkotzen ari dira –1994koa baita– ondoren, bertako diru-kopuruak kontabilitateko zifrekin bateratzeko.

Prozesu hori burutzeak lan handia eta giza eta gauza baliabideen kopuru handia eskatzen duela

kontuan izanik, gomendatzen dugu udalaren inbentarioa gaurkotzen jarraitzea eta baita ibilgetuarekiko korrespondentzia, udal ondasunen kontrolaren eta kontabilitatearen agerpen egokia bermatzearen.

VI.5. FINANTZA-KONTUAK ETA DIRUZAIN-TZA

Ondareko alor hau 1998ko ekitaldiarekiko ehuneko 306 igo da eta 456 milioitara iritsi da.

Bankuko saldoen etekin garbia, guztira, 0,9 milioikoa da eta korritu-tasa ehuneko 0,01-2 bitartekoa da.

Kudeaketa hobetzeko, hauxe gomendatzen dugu:

- *Diruzaintzako prozedura nagusiak ezartzea, idatziz, eta aldiro gaurkotuta mantentzen saiatzea.*

- *Diruzaintzako egoera-orrietan derrigorrezko dirubilletako kontuak eta egoera balantzearantz.*

VI.6. LANGILEAK

VI.6.1. Alderdi orokorrak

Langileen gastuak, 1999an, 1.333 milioikoak izan dira –ekitaldiko gastuen ehuneko 43–. Hone-la banatzen dira:

	(pezetak, milioitan)	
	Aitortutako obligazioak	
	1998	1999
Goi karguak	2	3
Kabineteko behin-behineko langileak	17	15
Funtzionarioak	583	621
Lan kontratudunak	245	269
Gizarte prestazio eta gastuak	222	208
Prestazioak pentsioengatik	215	217
Guztira	1.284	1.333

Plantilla organikoak, 1999ko urtarrilaren 1ean, 226 lanpostu biltzen ditu. Hauexek dira:

Vinculación	Kopurua
Funtzionarioa	187
Lan kontratupeko finkoak	16
Lan kontratupeko behin behinekoak	23
Guztira	226

1999ko Lan Eskaintza Publikoan honako lanpostu hauek daude:

Lan Eskaintza Publikoa	Kopurua
Deialdi publiko bidez betetzeko lanpostu hutsak	3
Barne sustapen bidez betetzeko lanpostu hutsak	13
Lanpostuen birmoldaketa	–

- Lan-absentismoa dela-eta, ez dago galduta lanaldiei ez eta horien arrazoiei buruzko datu sistematikorik.

Aipatutako datu horiek jasotzea gomendatzen dugu, langileak egoki kudeatzeko informazio eta kontrol tresna izan dadin.

- Prestakuntza. 1998 eta 1999 bitartean, INA-Pekin lankidetzan langile publikoen prestakuntza plana egin zen, 1999-2000 aldirako. Plan horrek udalak prestakuntza arloan dituen behar objektiboak jaso eta bateratzen ditu informazioaren teknologia berriekin eta langileen interesekin. Horren ondorioz, 24 prestakuntza ekintza eskaini ziren 1999an, eta 17 2000n.

- Udal Montepioa dela-eta, 1999an aipatzeko modukoak dira ondoko datuak:

Kontzeptua	Kopurua	(Pezetak, milioitan)	
		Zenbatekoa	zenbatekoa
Jubilazioa	55	120	2,2
Alarguntza	48	84	1,8
Zurztasuna	13	12	0,9
Bestelakoak	3	0,2	0,08
Guztira	119	216	1,8

VI.6.2. Langileen kudeaketa

Egin dugun lanaren laburpen gisa, honakoa esan dezakegu: langileen gastuak ondo kontabilitzatuta daude oro har, eta bat datoz udaleko langileek, arautegiari jarraiki, sortutako ordainsariekin.

Halere, ondokoa zehaztu behar dugu:

- Goi karguen ordainsariak. Honi buruz ondokoa esan behar dugu:

a) Tuterako alkateak ez zuen udalaren inolako ordainsaririk jaso 1999ko ekitaldian, Europako Parlamentuko kidea zelako. 1999ko uztaiaz geroztik, ordea, Tuterako Ingeniaritzako Eskola Teknikoan bere irakasle lanpostuan jasoko lukeen soldataren baliokidea jasotzen du. 2000ko mar-

txoaz geroztik hori jasotzeari utzi dio, senadore den aldetik dagokiona aukeratu duelako.

b) 1999an dedikazio eskusiboa duen zinegotzi delegatuaren figurarik ere ez dago, ez eta dagokion ordainsaririk ere.

- Zinegotziek, guztira, 15 milioi jaso dituzte –aurrekontuko 2. kapitulari egotzitakoak– fiskalizatutako ekitaldian beren dedikazioagatik. Kopuru hori honela banatzen da: 12 milioi osoko bilkuretara eta batzordeetara joateko dietengatik eta 3 milioi orduen konpentsazio gisa. Kopuru hauen guztizkoei ehuneko 15eko atxikipena aplikatzen zaiei PEFZa dela-eta. Dena den, 1999ko uztailean, udaleko osoko bilkurak dietengatik jasotako kopuruaren ehuneko 80 PEFZetik salbuestea erabaki zuen.

- Udal Montepioaren etorkizuneko konpromisoak ez dira zenbatu.

Egindako azterketa ikusita, hauxe gomendatzen dugu:

- *Foru Komunitateko Administrazioaren eta gainontzeko udal montepioen esparruan, behin betiko irtenbidea ematea horiei atxikitako funtzio -narioei aplikatu beharreko erretiro eta pentsio sistemari.*

- *Bosturtekoak betetzen dituzten funtzionarioei udal montepioaren beherapenak aplikatzeko oinarriak gaurkotzea.*

- *Ezarrita daukan ehuneko 80ko salbuespen horren egokitasuna aztertzea eta beste bide bat erabiltzea karguari dagozkion bestelako gastuak ordaintzeko.*

VI.7. TRIBUTU-DIRUSARRERAK ETA ZOR-DUNAK

VI.7.1. Zergak

1998ko eta 1999ko aurrekontuen likidazioaren arabera, ondokoak dira zerga mota nagusien zenbateko aitortuak:

Zergak	(pezetak, milioitan)		
	1998	1999	% cobro
Hirilur kontribuzioa	379	480	95
Ekonomi jarduerak	148	153	–
EIOZ	167	335	86
Ibilgailuen gainekoa	120	128	89
Lurren balioaren igoera	39	172	55
Luxu gastuak	14	12	90

Dirusarreratako 1 eta 2. kapituluek, guztira, udalaren dirusarreraren ehuneko 35 egiten dute; betetze maila, aldiz, ehuneko 131koa da.

Dirusarreraren igoera ondokoetan gertatu da batez ere: EIOZ, hirilur kontribuzioa eta lursailen balioaren igoeraren gaineko zerga, udalerrian izan den hirigintza jarduera areagotu egin delako (ehuneko 0,38tik ehuneko 0, 45era) eta lurren balio igoeraren zerga dela-eta, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Legeko 5. xedapen iragankorrari jarraikiz, hamar urteko plusbaliak kobratu direlako.

Udalak derrigorrezko zerga guztiak kudeatzen ditu, eta borondatezkoen artean, luxu gastuen gainekoa –bingoa eta ehiza-barrutiak– ordainarazten du.

Aplikatzekoak diren tasei dagokienez, ondoko taulan alderatu ditugu udalarenak eta Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritakoak:

Zerga	Tuterako Udala	TOFL
Hirilur kontribuzioa	0,45	0,1-0,5
Landalur kontribuzioa	0,63	0,1-0,8
Ekonomi jarduerak	1,32-1,4	1-1,4
Lurren balioaren igoera	20	8-20
5 urte bitarte	3,6	2,6-3,6
10 urte bitarte	3,5	2,3-3,5
15 urte bitarte	3,4	2,1-3,46
20 urte bitarte	3,4	2,1-3,4
EIOZ	4	2-5
Luxu gastuak-Bingoa	4	10

Ikusten denez, ehuneko horiek foru-arautegiak ezartzen duen eskalan erdi-goialdera kokatzen dira.

Egindako azterketaren arabera, udal zergen kudeaketan erabilitako prozedurak egokiak dira oro har, eta aurrekontuan azaltzen diren dirusarrek behar bezala erakusten dute zein den udalaren egoera.

Hona gure gomendioa:

- *Nafarroako Gobernuarekin batera ekonomi jardueren zergarako egindako erroldatik eratorritako arazoak konpontzea.*

VI.7.2. Tasak, prezio publikoak eta bestelako dirusarrerak

Dirusarreraren aurrekontuko 3. kapituluan 403 milioiko eskubideak azaltzen dira; betetze-maila ehuneko 114koa da, eta kobrantza portzentajea, aldiz, ehuneko 90ekoa.

Ondoko taulan, 15 milioitik gorako eskubide aitortuak azaltzen dituzten kontzeptuak agertzen dira:

Tasak, prezio publikoak eta bestelako dirusarrerak	Zenbatekoa (pezetak, milioitan)
Herrilurrak ureztatzeko zerbitzua	72
Kirol jarduerak	41
Hirigintza baimenak	81
Hautzaindegia	18
Berandutze interesak	21
Postuak, barrakak eta kalez kaleko industria	24
Hornidurak ustiatzeko enpresak	56

1999tik aurrera zabor bilketako tasa Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateak kudeatzen du.

Tasa eta prezioen lagin bat aztertuta, kudaketa-prozedura, oro har, egokia dela ikusten da; halere, hauxe gomendatzen dugu:

- *Ordaindu gabeko zor mota orori dagokion gerorapen korritua aplikatzea, indarrean dagoen legerian ezartzen den bezala.*

- *Isunak kobratzeko sistema Udal Diruzaintza-Dirubilletaren*

sistema orokorrean barneratzea, eta honakoan ere isun bakoitzaren historia eta egoera zehatza une oro ezagutu ahal izateko prozedurak ezartzea.

- *Ordaindu gabeko isunak, ezarritako epeen barruan, Agente Betearazleari igortzea kobraketa kudea dezan, betiere legeak ezarritako errekaru eta korrituekin.*

VI.7.3. Zordunak

Zordunen saldoa 854 milioi pezetakoa da (760 milioi 1998an).

Ondare hori guztia osatzen duten saldeek, oro har, kobratzeke dauden eskubideak osatzen dituzte. 1999rako, 352 milioi kobratzeko ezintasuna aurreikusi da, hau da, kobratzeke dauden eskubide guztien ehuneko 41.

Itxitako aurrekontuetako zordunen saldoa -359 milioi- honela banatzen da aitortu direneko ekitaldia kontuan hartuz (zenbatekoa milioitan):

Ekitaldia	1998	1999
1992	-	1
1993	6	8
1994	70	50
1995	103	91
1996	84	74

1997	88	64
1998	-	71

Guztira	351	359
---------	-----	-----

- *Agente betearazlearen eta udalaren arteko kontratua berrikusi eta gaurkotzea.*

VI.8. HIRIGINTZA

Tuterako egungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra 1991n onetsi zen, nahiz eta 1996an gaurkotua izan.

Ez da jasota ageri aldian aldiko txostenik egin denik ezarritako helburuen betetze-mailari zein jarduketa programaren jarraipenari eta plan ekonomiko-finantzarioari buruz.

Dena den, urtero oroit-idazkiak egiten dira ebatzitako espedientei buruz. Hala, adibidez, 1998an eta 1999an behin betiko fasean ebatzi ziren:

	1998	1999
Aldaketak	1	1
Plan bereziak	1	0
Xehetasun azterlanak	5	6
Urbanizazio proiektuak	1	1
Hirigintza hitzarmenak	2	2

Ondoko espedienteak tramitatu dituzte honako hauek:

	1999
Udalbatzak	70
Gobernu Batzordeak	581
Alkateak edo Hirigintzarako Zinegotzi Delegatuak	653

Hirigintza jarduketaren artean aipatzekoa da Nafarroako Gobernuarekin batera Gaztanbide antzokia zaharberritu izana.

Hirigintza- eta kontabilitate-obligazioen beteetzeari buruz, adierazi beharra dago Udalaren Lur Ondarea ez dagoela eraturik, ez eta Urbanizatu gabeko Orube eta Lurren Erregistroa ere.

Formalki, Lur ondarearen operazioetatik datozen dirusarrerak, ez daude atxikita, bereziki, berori handitu eta zaintzera. Dena den, Kontu-hartzaileak, kontabilitateetik kanpo, jatorri hori duten dirusarreraren aldian aldiko egoera-orriak egiten ditu.

Hirigintza- eta kontabilitate-obligazioak bete daitezen gomendatzen dugu.

VI.9. EUROAREN HASTAPENAK

EUROan sartzeak sortzen ahal dituen ondorioak direla-eta, udala, udal zerbitzuen bidez, sor litezkeen arazoak konpontzeko egin beharrekoak egitean ari da.

VI.10. GORABEHERAK

Udalan alor honen inguruan dagoen informazioa 2000ko irailaren 25ari dagokio eta ez da baloratu kontrako epai batek udal diru-kutxan izanen lukeen eragina.

Aipatutako datan igorritako informazioaren arabera, hona errekurso kopurua:

Auzitegi Goreneko errekursoak	5
Administrazioarekiko auzi-errekursoak	11
Nafarroako Administrazio Auzitegiko errekursoak	53

Hona gure gomendioa:

Udal zerbitzuek, tresna egokiak erabiliz, erre - kurtsoen jarraipen egokia egin dezatela, eta baita, egin daitekeenean, ekonomikoki sor ditzaketen gorabeherak ere zenbatu eta baloratu ditzatela.

Bestalde, 1998ko abenduaren 31n, udalak dituen zerga guztiak ikuskatzeko daude, eta beraz, behin betiko likidazioa egiteko dago.

VI.11. ERAKUNDE AUTONOMOAK

Ildatz-zati honetan udalaren bi erakunde autonomoetan egindako azterketaren ondorio nagusiak biltzen dira: Uren Batzarra eta Castel-Ruiz Kulturgunea.

Informazio ekonomikoaren aurkezpena eske matizatzearen, bi entitate horien aurrekontuetako datu nabarmenenak datoz ondoren:

Gastu eta dirusarreraren betetze maila (pezetak miloikotan)

Gastuak	Hasierakoa	Behin-betikoa	Aitortuta	Betetze %
Uren Batzarra	590	708	339	48
Castel-Ruiz	149	164	157	96
Dirusarrerak	Hasierakoa	Behin-betikoa	Aitortuta	Betetze %
Uren Batzarra	590	708	374	53
Castel-Ruiz	149	164	157	96

Gastuak eta dirusarrerak bere izaeraren arabera (pezetak miloikotan)

Gastuak	Uren Batzarra		Castel-Ruiz	
	1998	1999	1998	1999
Langileak	100	106	72	80
Erosketak	147	123	66	71
Finantzarioak	2	1	-	-
Transferentzia arruntak	-	-	5	5
Inbertsioak	88	91	2	2
Kapital transferentziak	-	3	-	-
Finantza-pasiboak	15	14	-	-

Dirusarrerak	Uren Batzarra		Castel-Ruiz	
	1998	1999	1998	1999
Tasak eta bestelakoak	308	337	25	24
Transferentzia arruntak	16	-	120	134
Ondare dirusarrerak	5	4	-	-
Inbertsioak besterantzea	1	-	-	-
Transferentziak eta bestelako kapital dirusarrerak	54	32	-	-

Udalaren ekarpena (milioika)

Transferentziak	Uren Batzarra	Castel-Ruiz
Arruntak	(1)	105 (2)
Kapitalezkoak	-	-
Guztira	-	105

(1) Estolderia garbitzeko zerbitzuaren osoko kudeaketa Udalak Batzarrari lagatzearen ondorioz, transferentzia mota hau desagertu egiten da. 1998an 15 milioi pezetakoa izan zen.

(2) Udalaren ekarpena, aurrekontua orekatzeko.

VI.10.1. Uren Batzarra

Aurkeztutako urteroko kontuak, oro har, Uren Batzarrak 1999ko ekitaldian egindako jardueraren adierazgarri dira.

Datu ekonomiko nagusi gisa ondokoak aipatzen ditugu:

- Epe luzerako zorpetzea 149 milioikoa da, eta epe laburrera muga-eguna dutenak 14 milioi egiten dute, guztira. Epe laburreko gainerako zorrak 134 milioitara iristen dira.

- Batzarraren aldeko epe laburreko zorrak 124 milioi egiten dute, guztira.

- Diruzaintzako gerakina abenduaren 31n 268 milioikoa da eta horietatik 261 milioi erabilera librekoak dira.

Halaber, esan behar da Batzarrak urtero bere inbentarioa erregistratu eta gaurkotzen duela, eta ibilgetuaren zifrekin konparatzeaz gain urtero dagozkion amortizazioak egiten dituela -122 milioi 1999an-. Halaber, berandutzen diren zordunei dagozkien zuzkidura jartzen du -1999an 19 milioi.

Egindako berrikuspenetik, ondoko gomendioak ematen ditugu:

- *Batzarreko idazkariak duen lan-harremana toki entitateen egungo araudira lotzea; gaur egun zerbitzuen errendamentu harremana baitu.*

- *Inbertsioak izapidatu eta egiteko epeen gaineko kontrol zehatza egitea.*

- *Udal Kontu-hartzaitzarekin batera, bere eginkizuna den espedienteen tramitazioa egitea.*

- *Agente betearazleari jarduera horietan ohiko -ak diren garantiak eman ditzala eskatzea eta horretarako, behar izanez gero, bi aldeak lotzen dituen kontratua aldatzea.*

- *Agente betearazlearen jarduerak eragiten dituen gastu eta dirusarrerak aurrekontuan sartzea.*

VI.II.2. Castel-Ruiz Kulturgunea

Aurkeztutako urteko kontuek, oro har, burututako jarduera islatzen dute, baina, ibilgetuak ez du jasotzen atxikitako ondasun gisa Udalak bere jardunerako emandako eraikina. Bestalde, inbentarioa ez da gaurkotu 1994tik; beraz, ezin dira horren zifrak ibilgetuarenekin bateratu.

Datu ekonomiko nagusi gisa, ondokoak ematen ditugu:

- *Epe luzerako zorpetzerik ez dago; epe laburrerakoa 22 milioikoa da.*

- *Diruzaintzako gerakina, abenduaren 31n, 2,5 milioitakoa da eta ez dago atxikia.*

- *Udalak ematen duen dirulaguntzak kulturgunea kudeatzeko defizitari aurre egiten dio.*

1999an, kontzeptu horregatik udalak emandako laguntza 105 milioikoa izan da.

Egindako berrikuspenetik, ondoko gomendioak ematen ditugu:

- *Udalaren ondasunak ibilgetuari atxikitzea eta ondare-masa horretako datuak aldez aurretik gaurkotutako inbentariokoekin bateratzea.*

- *Egindako zenbaketa aktak beharrezko sina -durekin formalizatzea.*

- *Musika taldeari bereziki emandako laguntzen ondoriozko egoera fiskala aztertzea.*

- *Udal Kontu-hartzaitzarekin batera, bere eginkizuna den espedienteen tramitazioa egitea.*

Francisco Javier Sesma Masa auditoreak proposatuta eman da txosten hau, berau izan baita arduraduna, indarreko arauak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

GEHIGARRIA: FINANTZA-EGOERA 1999KO ABENDUAREN 31N

Gehigarriaren aurkezpena hobeto taxutzearen, honako atalotan emanen dugu:

a) 1999ko aurrekontu bateratuan nabarmendu beharreko alderdiak.

b) Ratio eta magnitude nabarmenenak.

c) Zorpetzearen egoera.

A) 1999KO AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEA

1999ko aurrekontu bateratuaren (udala eta erakunde autonomoak) betetzea ondoko taulan azaltzen da.

Tuterako Udala – Betetze bateratua

	Euroak, milakotan	Pezetak, milakotan	%
ORGANIKOA: NORK GASTATZEN DUEN			
Administrazio Orokorra	18.031	3.000.023	86
Erakunde autonomo administratiboak	2.985	496.713	14
EKONOMIKOA: NOLA GASTATZEN DEN			
I. Langileen gastuak	9.102	1.514.443	43
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	6.359	1.058.179	30
III. Finantza-gastuak	533	88.718	2,5
IV. Transferentzia arruntak	1.108	184.356	5,2
VI. Inbertsio errealak	3.112	517.851	15
VII. Kapital transferentziak	218	36.212	1
VIII. Finantza-aktiboak	0	0	0
IX. Finantza-pasiboak	583	96.977	3
EKONOMIKOA: B.- ZERTAN GASTATZEN DEN			
I.- Funtzionamendu gastuak	15.462	2.572.622	74
II.- Finantza-zama	1.116	185.695	5
III.- Transferentziak	1.326	220.568	6
IV.- Inbertsio gastuak	3.112	517.851	15
EKONOMIKOA: C.- GASTUAK NOLA FINANTZIATZEN DIREN			
I.- Zerga bidezko dirusarrerak	12.442	2.070.154	50
II.- Transferentziak	10.681	1.771.103	43
III.- Ondare bidezko dirusarrerak	1.663	276.645	7
IV.- Finantza eragiketak	0	0	0

	Euroak, milakotan	Pezetak, milakotan	%
FUNTZIONALA: ZERTARAKO GASTATZEN DEN			
Izaera orokorreko zerbitzuak	1.821	303.078	9
Segurtasuna eta Babes Zibila	1692	281.496	8
Segurtasuna, Babesa eta Gizarte Sustapena	4.445	739.622	22
Ondasun publiko sozialen produkzioa	10.287	1.711.549	49
Ondasun publiko ekonomikoen produkzioa	889	147.880	4
Erregulazio ekonomiko orokorra	424	70.626	2
Produktzio sektoreen erregulazio ekonomikoa	342	56.842	1
Erakunde autonomoak	0	0	0
Administrazio Publikoentzako transferentziak	0	0	0
Zor Publikoa	1.116	185.644	5

Azterketa horretatik, hauxe nabarmentzen dugu:

- Gastua, guztira, 3.496 milioikoa da –21 milioi euro–; ehuneko 89 Udalari dagokio, eta gainontzekoa erakunde autonomoei.

- Kapitulu ekonomikoari erreparatuta, langileen gastuek –ehuneko 43–, ondasun arrunten erosketak –ehuneko 30– eta inbertsioek –ehuneko 15– udalaren gastuaren ehuneko 88 egiten dute.

- Finantza-zamak sortutako gastuek –korrituak eta amortizazioa– aurrekontuaren ehuneko 2,5 egiten dute.

- Gastu-funtzioari dagokionez, "Gizarte izaerako ondasun publikoen ekoizpenak" (Hezkuntza, Etxebizitza, Kultura...) eta Gizarte Segurtasun, Babes eta Sustapenak Udalaren gastuaren ehuneko 70 justifikatzen dute, gutxi gorabehera.

- Gastu horien finantziazio iturriak honakoak dira: tributu bidezko dirusarrerak –ehuneko 50–, eta transferentziak –ehuneko 35–, batez ere Nafarroako Gobernuarenak. Aipagarria da ekitaldi horretan ez dela kanpoko finantza-baliabiderik erabili.

Udalaren aurrekontuaren betetzeari soilik erreparatuta –ikus V. Atala–, ondokoak zehatz eta mehatz nabarmendu behar dira:

- Hasierako aurrekontua ehuneko 17 –574 milioi– igo da aldaketak direla medio, batez ere

aurreko ekitaldiko kreditu-gerakinak sartu direlako –361 milioi– ⁽¹⁾.

- Gastuen betetze maila ehuneko 78koa da. Aipagarria da inbertsio eragiketen kapituluetakoa ehunekoak batez bestekotik beherakoak direla (inbertsio errealak eta kapital transferentziak, ehuneko 38 eta 46, hurrenez hurren).

- Dirusarreretan, betetze maila ehuneko 92koa da; aipatu behar da zergek erakusten duten maila ona –ehuneko 131ko betetze maila, hau da, 318 milioi gehiago bildu dira.

- Ordainketen betetze maila ehuneko 88koa da, eta kobrantzena ehuneko 87koa.

Erakunde autonomoen aurrekontuaren betetzea dela-eta, hauxe adierazten dugu:

- Uren Batzarraren aurrekontuak aldaketa handiak izan ditu, hasierako aurreikuspenak 118 milioi igo baitira, hau da, ehuneko 20 gehiago. Aldaketa horiek inbertsio errealetan gertatu dira, batez ere.

Gastuen betetze maila, ordea, ehuneko 48koa da eta ehuneko horrek inbertsioen kapituluaren ehuneko 21 egiten du. Alegia, inbertsiorako behin betikoz aurreikusitako 422 milioitatik, urtea bukatzean 91 milioi aitortu dira.

Dirusarrerei dagokienez, betetze maila ehuneko 53koa da; aipagarriak dira kapital transferentziak, ehuneko 12ko betetze maila baitute.

(1) 1996ko 115 milioi, 1997ko 341 milioi eta 1998ko 456 milioi.

• Castel-Ruiz Kulturguneak dituen gastuen eta dirusarreraren ehunekoak orekatuak dira: 157 milioi, ehuneko 96ko betetze-mailarekin. Gastuei dago-kienez, batez ere langileen gastuak aipatu behar dira –ehuneko 51– eta baita ondasun arruntak erostea –ehuneko 45–. Dirusarrerei dagokienez, batez ere transferentzia arruntetatik datoz –guztiz-koaren ehuneko 85.

B) RATIO ETA MAGNITUDE NABARMENE-NAK

Ondotik datorren taulan azaltzen dira 1998 eta 1999ko ekitaldietako aurrekontu-betetze bateratu-tik ateratzen diren ratio nabarmenenak.

TUTERAKO UDALA - Datu bateratuak			
Adierazle nagusiak	1999	1998	1997 (*)
Dirusarrerak biztanle bakoitzeko (pezetak)	148.459	136.876	145.659
Zerga bidezko dirusarrerak per capita (pezetak)	74.525	63.981	62.420
Gastuak, biztanleko (pezetak)	125.881	131.190	127.401
Gastu arrunta, biztanleko (pezetak)	102.444	103.097	101.549
Finantza-zama, biztanleko (pezetak)	6.684	7.144	9.217
Zorpetze maila (portzentajea)	5	6	8
Zorpetze muga (portzentajea)	26	16	14
Zorpetze ahalmena (portzentajea)	21	10	6
Zorra, guztira / Dirusarrera arruntak (portzentajea)	90	118	127
Aurrezki garbia (portzentajea)	21	10	6
Langileen indizea (portzentajea)	43	41	41
Inbertsio indizea (portzentajea)	15	19	17
Dirulaguntzekiko menpekotasuna (portzentajea)	43	40	42

(*) Fiskalizatu gabeko ekitaldia

Haren azterketatik, ondokoak nabarmentzen ditugu:

• Biztanle bakoitzeko zerga bidezko dirusarrerak ehuneko 16 hazi dira, eta gastu arruntak, aldiz, ehuneko 1 jaitsi.

• Finantza-zama, biztanle bakoitzeko ehuneko 7 jaitsi da.

• Dirusarrera arrunten gaineko zorpetzea, guztira, ehuneko 90 ingurukoa da; aurreko ekitaldian baino 28 puntu gutxiago.

• Aurrezki garbia 11 puntu igo da.

• Langileen gastuak zertxobait igo dira –ehuneko 2–, eta inbertsioak, berriz, jaitsi –ehuneko 4–. Hau da, gastatutako 100 pezetetatik 58 bideratzen dira kontzeptu horietara.

• Dirulaguntzekiko menpekotasuna ehuneko 40tik 43ra igo da; hau da, dirusarreretako 100 pezetatik 43 transferentzia eta dirusarreretatik datoz.

Ondoko taulan, udalaren eta haren erakunde autonomoen magnitude nagusiak azaltzen dira (milioitan):

Magnitudea/Entitatea	Udala	Uren Batzarra	Castel-Ruiz	Bateratua
Diruzaintzako gerakina	323	268	2	593
Aurrekontuko emaitza	664	59	0	723
Ekonomia-emaitza	560	(22)	1	539

Diruzaintzako gerakinari erreparatuta, hauxe nabarmentzen dugu:

- Udal enteek 593 milioiko gerakin positiboa dute guztira, udalak eta Uren Batzarrak lortuta bereziki.

- Banatuta, honela azaltzen dira 593 milioi horiek:

Atxikitako diruzaintzako gerakina	30
Gastu orokorretako diruzaintzako gerakina	563

- Azkenik, hona hemen gerakinak azken urteotan izan duen bilakaera (pezetak, miliotan):

Diruzaintzako gerakina	Bateratua	Udala
1996	(425)	(569)
1997	87	(101)
1998	55	(171)
1999	593	323

Ikus daitekeenez, magnitude horren bilakaera ona izan da azken urteotan, defizit handia izatetik aldeko saldoa izatera pasa baita.

Bestalde, komeni da bere bilakaera aztertzea baina gastu orokorretarako gerakinari erreparatuz:

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	Bateratua	Udala
1996	(266)	(410)
1997	(169)	(354)
1998	(73)	(279)
1999	563	300

C) ZORPETZEA

Balantzearen informazioaren arabera, ondoko taulan 1996tik 1998ra bitarteko zor bateratu guztia, epe luze zein laburrekoa, azaltzen da, milioitan. Orobat azaltzen dira zorpetzearekin zerikusia duten hainbat adierazle esanguratsu:

Zorra	1996	1997	1998	1999
Epe luzerakoa	2.578	2.885	2.821	2.621
Epe laburrerakoa	1.111	936	936	737
Zorra, guztira	3.688	3.821	3.757	3.358
Zorpetze maila	13%	8%	6%	5%
Zorpetze muga	8%	14%	16%	26%
Zorra/Dirusarrera arruntak	134%	127%	118%	90%


- Epe laburrerako zorra 200 milioi gutxitu da aurreko bi urteen aldean. Epe luzerakoa ere 200 milioi gutxitu da 1998tik hona.

- Zorpetze maila zortzi puntu jaitsi da; 1999an ehuneko 5ean geratu da. Aldi berean, zorpetzeko ahalmena edo zorpetze muga 10 puntu igo da. Azkenik, dirusarrera arruntekiko zorra, guztira,

ehuneko 90era jaitsi da da, 1996an bere baliorik gorena izan eta gero –ehuneko 134.

Laburbilduz, eta azken ondorio gisa, Udalak nabarmen hobetu du bere finantza-egoera, batez ere zorpetze maila eta ahalmena, eta zorrotz ari da betetzen bideragarritasun finantzarioari buruzko plana.

1. ERANSKINA. TUTERAKO UDALAREN ORGANIGRAMA 1999-12-31N



II. ERANSKINA. ERABILITAKO ADIERAZLEEN DEFINIZIOA

- Diru-sarreraren betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea = $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea = $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila = $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea = $\frac{\text{Langileen aitorturiko betebeharrak}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea = $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna = $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Presio fiskala edo tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko = $\frac{\text{Tributu bidezko diru-sarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--